## UDALEKO OSOKO BILKURAREN OHIKO BILERA

**2016ko azaroaren 25a**

Lesakako Herriko Etxeko Bilera Aretoan, bi mila eta hamaseigarren urteko azaroaren hogeita bortzean, ortziralea, ilunabarreko zortzietan, udaleko Osoko Bilkura bildu da, ohiko bileran eta lehenengo deialdian, Jose Luis Echegaray Andueza alkate jaunaren lehendakaritzapean eta honako zinegotzi hauek etorri direla: Pedro Apezteguía Alzugaray, Maria Victoria Gortari Aldave, Esteban Irazoqui Irazoqui, Jose Maria Portu Ochoteco, Maider Arrieta Tapia, Oier Iantzi Ordoki, Lorea Flores Compains eta Severiano Txoperena Matxikote jaun-andreak.

Ez dira agertu Iban de Prado Etxepeteleku eta Mattin Etxabide Gartzia zinegotzi jaunak, eta ez etorri izana justifikatu dute.

Idazkari lanetan, Andoni Esparza Leibar jauna ari da, udaleko idazkaria.

2015eko ekainaren 19ko Osoko Bilkuran erabakitakoarekin bat, bilkura guziaren soinu-grabaketa eginen da, geroago Udalaren web orrian zintzilikatzeko xedearekin. Akten idazkerari dagokionez, kontuan hartu da 2016ko maiatzaren 20an eginiko bilkurako 1. puntuan adierazitakoa.

Alkate jaunaren aginduz, bilkura hasi da eta, deialdiari jarraituz, honako gai hauei buruz aritu dira:

## SESIÓN ORDINARIA DEL PLENO DEL AYUNTAMIENTO

**25 de noviembre de 2016**

En el Ayuntamiento de la Villa de Lesaka, siendo las diecinueve horas del viernes 25 de noviembre del año dos mil dieciséis, se reúne, en sesión ordinaria y a primera convocatoria, el Pleno municipal, presidido por el señor alcalde don José Luis Echegaray Andueza y con la asistencia de los siguientes concejales: don Pedro Apezteguía Alzugaray, doña María Victoria Gortari Aldave, don Esteban Irazoqui Irazoqui, don José María Portu Ochoteco, doña Maider Arrieta Tapia, don Oier Iantzi Ordoki, doña Lorea Flores Compains y don Severiano Txoperena Matxikote.

No acuden, habiendo excusado su inasistencia, los concejales don Iban de Prado Etxepeteleku y don Mattin Etxabide Gartzia.

Actúa como secretario, el de la Corporación, don Andoni Esparza Leibar.

En cumplimiento de lo acordado por el Pleno del Ayuntamiento con fecha 19 de junio de 2015, se realizará una grabación de sonido de la totalidad de la sesión, con el fin de colgarla posteriormente en la página web municipal. En cuanto a la redacción de las actas, se tiene en cuenta lo indicado en el punto 1 de la celebrada el 20 de mayo de 2016.

Por disposición del señor alcalde se da comienzo a la sesión en la que, conforme a la convocatoria, son tratados los siguientes asuntos:

**1 – AZKEN BILKURARI DAGOKION AKTAREN ONESPENA**

Puntu honi dagokionez, Maider Arrietak adierazi du Mattin Etxabidek, aitzineko bilkuran egin zuen bezala, idazki bat aurkeztu duela erranez zein diren Osoko Bilkurara ez etortzeko arrazoiak eta eskatuz arrazoi horiek aktan agertzeko. Alkate jaunak erantzun du erranez bakarrik adierazten dela ez etortzea justifikatua den ala ez, eta hori horrela dela aspaldidanik. Ondoren, bien arteko eztabaida izan da.

Azkenik, Osoko Bilkurak, Geroa Bai-ko bortz zinegotzien aldeko botoarekin eta EH Bildu-ko lauen aurkako botoarekin, azken bilkurako akta onartu du, 2016ko urriaren 28koa.

**1 – APROBACIÓN DEL ACTA CORRESPONDIENTE A LA ÚLTIMA SESIÓN**

En relación a este punto, Maider Arrieta señala que Mattin Etxabide, al igual que hizo en la sesión anterior, ha presentado un escrito señalando los motivos por los que no puede acudir al Pleno y solicitando que los mismos figuren en el acta. El alcalde responde que tan solo se hace constar si se justifica o no la ausencia y que esto es así desde hace muchos años. A continuación se produce un debate entre los dos.

Finalmente, el Pleno, con el voto a favor de los cinco concejales de Geroa Bai y el voto en contra de los cuatro de EH Bildu, aprueba el acta de la última sesión, celebrada el día 28 de octubre de 2016.

**2 – FRANCISCA RAMONA ORDOQUI UBIRIAK ESKATURIKO OIHAN APROBETXAMENDUAK**

2016ko urriaren 24an aurkezturiko eskaerak aztertuta (2794 eta 2795 zenbakiko sarrerak Udaleko Erregistro Orokorrean), Osoko Bilkurak aho batez honako hau erabaki du:

1 – Nafarroako Gobernuko Oihanaren Kudeaketa Atalaren aitzinean tramitatzea Francisca Ramona Ordoqui Ubiria andreak eginiko eskaerak, honako oihan aprobetxamendu hauek egiteko:

- Intsinis pinuren matarrasa, 5.928m$^2$-ko lur-eremu batean, Ugaburukomalda parajean

**2 – APROVECHAMIENTOS FORESTALES SOLICITADOS POR FRANCISCA RAMONA ORDOQUI UBIRIA**

Examinadas las instancias presentadas con fecha 24 de octubre de 2016 (entradas nº 2794 y 2795 en el Registro General del Ayuntamiento), el Pleno acuerda por unanimidad:

1º) Tramitar ante la Sección de Gestión Forestal del Gobierno de Navarra las solicitudes formuladas por doña Francisca Ramona Ordoqui Ubiria, para realizar los siguientes aprovechamientos:

- Matarrasa de pino insignis en una finca de 5.928 m$^2$, ubicada en el paraje de Ugaburukomalda

dagoena (Katazpegi auzoa). Katastroko 2. poligonoko 235 lurzatiaren U azpipartzelaren zati bati dagokio (Aprobetxamenduaren erreferentzia: Oihapart/2016/10).

- Intsinis pinuren matarrasa, 67.199 m$^2$-ko lur-eremu batean, Otxotegaraia alderdian dagoena. Katastroko 1. poligonoko 234 lurzatiaren K azpipartzelaren zati bati, eta baita 478 lurzatiari ere, dagokie, azken hau titulartasun partikularrekoa (Aprobetxamenduaren erreferentzia: Oihapart/2016/11).

2 – Lanak hasi baino lehen horren berri eman beharko dio Udalari, eta baita aprobetxamendua amaitu baino lehen ere, hark egiaztatu ahal izateko nola gelditu diren erabili diren bideak.

Horretarako, ezarritako fidantza jarri beharko du, eta hori zenbatekoa den jakinaraziko zaio.

Bideak ezin izanen dira egoera txarrean utzi. Hori gertatuz gero, hamabortz eguneko epea emanen zaio haiek konpontzeko. Bertzela, Udalak berak moldatuko ditu, aprobetxamendua egin duten jabeen kontura.

Orokorrean, eguraldi euritsuarekin ezin izanen da egurrik garraiatu, baldin eta horretarako baimen espresa ematen ez bazaio.

3 – Sustatzaileari jakinaraztea Udalari ordaindu beharko diola lehenengo aprobetxamenduaren balioaren %10a eta bigarreneko lurzati komunalari (234.a) dagokion %10a. Aprobetxamendua egin ondotik lurzati komunalak Udalaren esku geldituko dira, nahi

(barrio de Katazpegi). Corresponde a parte de la subparcela U de la parcela 235 del polígono 2 del catastro (Referencia del aprovechamiento: Oihapart/2016/10).

- Matarrasa de pino insignis en una finca de 67.199 m$^2$, ubicada en el paraje de Otxotegaraia. Corresponde a parte de la subparcela K de la parcela 234 del polígono 1 del catastro, además de la parcela 478, esta última de titularidad particular (Referencia del aprovechamiento: Oihapart/2016/11).

2º) Con carácter previo al comienzo de las labores de saca, deberá comunicárselo al Ayuntamiento y también antes de finalizar las mismas, a fin de que éste pueda comprobar el estado de los caminos utilizados.

Para ello tendrá que constituir la fianza establecida, cuyo importe le será comunicado.

Los caminos no podrán dejarse en malas condiciones. Si esto sucediera, se le dará un plazo de quince días para arreglarlos. En caso contrario, los reparará el Ayuntamiento, a cargo de los propietarios del aprovechamiento.

En general, no podrá transportarse madera con tiempo lluvioso, salvo que se le conceda una autorización expresa para ello.

3º) Comunicarle que deberá abonar al Ayuntamiento el 10% del valor del primer aprovechamiento y el 10% del correspondiente a la parcela comunal (nº 234) del segundo. Tras ello las parcelas comunales quedarán a la entera disposición del Ayuntamiento.

duenerako.

**3 – ORDENANTZA FISKALETAKO ALDAKETA 2017. URTERAKO. BEHIN BETIKO ONESPENA**

Udalak, 2016ko irailaren 30ean eginiko osoko bilkuran, hasiera batean onetsi zuen ordenantza fiskaletako aldaketa, 2017. urteko tarifak paratzeko.

Dagozkion ediktuak honako leku hauetan argitaratu ziren: Udaleko iragarki taulan, web orrialdean eta 199. Nafarroako Aldizkari Ofizialean, 2016ko urriaren 14koan.

Jendaurreko epealdian, alegazio bakarra jaso da, EH Bilduko udal taldeak aurkezturikoa (2953 zenbakiko sarrera, 2016/11/07koa).

Bertzalde, idazkariak adierazi du oker bat zuzendu dela, Eraikin, Instalazio eta Obren gaineko Zergan %3,5eko zerga-tasa murritza aplikatzen den kasuekin zerikusia duena.

Eztabaida izan da eta bertan parte hartu dute Jose Luis Echegaray alkateak eta Severiano Txoperena zinegotziak.

Behin hura amaituta, Udalbatzak, Geroa Baiko bortz zinegotzien aldeko botoekin eta EH Bilduko lauen kontrakoekin, honako hau erabaki du:

1 – Behin betiko onespena ematea Ordenantza Fiskaletako aldaketari 2017. urterako.

2 – Behin betiko testua tarifa berriekin

**3 – APROBACIÓN DEFINITIVA DE LA MODIFICACIÓN DE ORDENANZAS FISCALES PARA 2017**

El Pleno del Ayuntamiento de Lesaka, en sesión celebrada el día 30 de septiembre de 2016 aprobó inicialmente la modificación de las Ordenanzas Fiscales para el año 2017.

Fueron publicados los correspondientes edictos en el tablón del Ayuntamiento, en su página web y en el Boletín Oficial de Navarra nº 199, de 14 de octubre de 2016.

Durante el periodo de exposición al público se ha recibido una sola alegación, formulada por el grupo municipal de EH Bildu (entrada nº 2953, de 07/11/2016).

Por otra parte, el secretario indica que ha sido subsanado un error, referente a los casos en que se aplica el tipo reducido del 3,5% en el Impuesto sobre Construcciones, Instalaciones y Obras.

Se produce al respecto un debate en el que intervienen el alcalde José Luis Echegaray y el concejal Severiano Txoperena.

Una vez finalizado el mismo, la Corporación, con los votos a favor de los cinco concejales de Geroa Bai y en contra de los cuatro de EH Bildu, acuerda:

1º) Aprobar definitivamente la modificación de las Ordenanzas Fiscales para el año 2017.

2º) Que se publique el texto definitivo con

Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

3 – Tarifa horien berri ematea Nafarroako Gobernuko Administrazio Lokaleko Zuzendaritza Nagusiko Ordenantza Fiskaletako Erregistroari.

las nuevas tarifas en el Boletín Oficial de Navarra.

3º) La notificación de las mismas al Registro de Ordenanzas Fiscales de la Dirección General de Administración Local del Gobierno de Navarra.

**4 – EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA EZABATZEKO NAZIOARTEKO EGUNA**

Espedientean ageri dira hainbat akordio-proposamen. Haietako bat, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak (NUKF) bidalia da eta azaroaren 3an jaso zen (2918 zenbakiko sarrera Udaleko Erregistro Orokorrean). Bertzea, Lesakako EH Bilduk bidali zuen (2939 zenbakiko sarrera, 2016/11/04koa). Alkateak adierazi du NUKF-k aurkeztu duen testua alderdi politiko ezberdinen adostasuarekin egin (horien artea EH Bildu) eta Nafarroako Parlamentuan aurkeztu zela.

Ondoren, eztabaida izan da horren inguruan eta bertan parte hartu dute Jose Luis Echegaray alkateak eta Lorea Flores eta Maider Arrieta zinegotziak.

NUKF-aren akordio-proposamena honako hau da:

**"Hori guztia dela eta, era kolektiboan, Tokiko Erakundeek, honakoa ADIERAZTEN DUGU:**

**GURE GAITZESPENA** indarkeria sexistari: agerian dagoenari nahiz ikusten ez denari, eta haren adierazpen guztiei, diskriminazioaren eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasun faltaren emaitza direnak.

**4 – DÍA INTERNACIONAL PARA LA ELIMINACIÓN DE LA VIOLENCIA HACIA LAS MUJERES**

Constan en el expediente varias propuestas de acuerdo. Una de ellas fue enviada por la Federación Navarra de Municipios y Concejos (FNMC) se recibió el día 3 de noviembre (entrada nº 2918 en el Registro General del Ayuntamiento). Otra, fue enviada por EH Bildu de Lesaka (entrada 2939, de 04/11/2016). El alcalde indica que el texto presentado por la FNMC fue consensuado por los diversos partidos políticos (entre ellos EH Bildu) y presentado al Parlamento de Navarra.

Tras ello se produce al respecto un debate en el que intervienen el alcalde José Luis Echegaray y las concejales Lorea Flores y Maider Arrieta.

La propuesta de acuerdo de la FNMC es la siguiente:

**"Por todo ello, de manera colectiva, las Entidades Locales, MANIFESTAMOS:**

**NUESTRA REPULSA** a la violencia sexista: la que se ve y la que no, y a todas y cada una de sus manifestaciones, producto de la discriminación y falta de equidad entre mujeres y hombres.

**GURE KONPROMISOA** Herri Erakunde gisa, era aktiboan ezberdintasunen eta emakumeen eta gizonen arteko harreman ez orekatuen kontra lanean jarraitzeko, indarkeria-haztegia direlako, baita gure konpromisoa emakumeen aurkako indarkeria mota guztien aurrean erantzutekoa ere, **berdintasuna politika guztien ardatza izanen den legegintzaldi batean.**

**GURE ELKARTASUNA** edozein eraso jasan edota hildako emakume horiekin guztiekin baita muturreko indarkeria sexistaren biktima izan direnekin ere. Gure babes osoa beraiendako eta beren familiendako.

**ETA HERRITAR GUZTIAK GONBIDATZEN DITUGU,** emakumeen aurkako indarkeria gaitzespen jarrera erakusten jarraitzeko, banakoarena nahiz taldekoarena, indarkeria mota hori errotik kentzeko. Baita emakumeen bizitzan ematen diren indarkeria mota guztiak eta kontrol patriarkalaren adierazpen guztiak salatzera. Eta, azkenik, azaroaren 25aren inguruan antolatuko diren jardueretan parte hartzera animatu nahi ditugu.

Horrela, guztiok batera aurrera jarraituko dugu, geroz eta jasangarriagoa, demokratikoagoa, bidezkoagoa eta berdinagoa izanen den gizartea baten bidean".

Bozketa eginda, proposamena aho batez onartu da.

**NUESTRO COMPROMISO** como Administraciones Públicas de seguir trabajando activamente contra la desigualdad y el desequilibrio de las relaciones entre mujeres y hombres, caldo de cultivo de la violencia, así como nuestro compromiso en la respuesta ante todo tipo de violencias contra las mujeres, en **una legislatura donde la igualdad sea el centro de las políticas**

**NUESTRA SOLIDARIDAD** con las mujeres agredidas o asesinadas, víctimas de la violencia sexista más extrema, transmitiendo todo nuestro apoyo para ellas y sus familias.

**E INVITAMOS A TODA LA CIUDADANÍA** a seguir mostrando su rechazo y su compromiso, tanto individual como colectivo, con la erradicación de la violencia contra las mujeres, la denuncia de todas las manifestaciones del control patriarcal, de todas las formas de violencia presentes en la vida de las mujeres, y a participar en todas las actividades que se organicen en torno al 25 de noviembre.

Así, seguiremos avanzando conjuntamente hacia a una sociedad sostenible, cada vez más democrática, justa e igualitaria".

Realizada la votación, la propuesta es aprobada por unanimidad.

**5 – HIRIGINTZAKO UDAL PLANAREN ALDAKETA EGITURATZAILEA LUR URBANIZAEZINAREN ESPARRUAN**

**5 – MODIFICACIÓN ESTRUCTURANTE DEL PLAN MUNICIPAL DE URBANISMO EN EL ÁMBITO DEL**

Espedientean ageri da Alberto Anderez Gonzalez abokatu jaunak emaniko txostena, zeinari akordio-proposamen bat eransten zaion. Posta elektronikoz aurreratu zen 2016/11/15ean (3052 zenbakiko sarrera Udaleko Erregistro Orokorrean), eta jatorrizkoa 18an jaso da (3099 zenbakiko sarrera).

Bertzalde, Javier Lekuona arkitekto jaunari eskatu zitzaion bidaltzeko Plan aldaketa horretan sarturik dauden arau urbanistikoen testu eguneratu eta zuzendua. Horri dagokionez, azaroaren 14an jaso zen Lekuona Arkitekturak bidalitako dokumentazioa (3038 zenbakiko sarrera).

Hori guzia Udaleko Hirigintza Batzordeak aztertu zuen azaroaren 15ean eginiko bileran.

Udaleko idazkariak azaroaren 22an emaniko txostena ere ageri da.

Ondoren, azaroaren 22ko idazki baten bitartez (1940 zenbakiko irteera Udaleko Erregistro Orokorrean), azalpena eskatu zitzaion Jabier Lekuona arkitekto jaunari, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu beharreko agirien inguruan. Erantzuna 23an jaso zen (3133 zenbakiko sarrera), geroago Lekuona jaunak ahoz argitu duena.

Ondoren eztabaida hasi da. Lorea Floresek adierazi du bere taldeak uste duela proposatzen den jarduketa arriskutsua dela eta horregatik proposatzen dute oraindik ez hartzeko horri buruzko

**SUELO NO URBANIZABLE**

Constan en el expediente el informe emitido por el abogado don Alberto Andérez Gonzalez, al que se acompaña una propuesta de acuerdo. Fue adelantado por correo electrónico el día 15/11/2016 (entrada nº 3052 en el Registro General del Ayuntamiento), recibiéndose el original el día 18 (entrada nº 3099).

Por otra parte, se había solicitado al arquitecto don Javier Lekuona que enviara el texto actualizado y corregido de las normas urbanísticas incluidas en la citada modificación del Plan. Al respecto, el día 14 de noviembre se recibió la documentación remitida por Lekuona Arkitektura (entrada nº 3038).

Todo ello fue examinado por la Comisión de Urbanismo del Ayuntamiento, en reunión celebrada el día 15 de noviembre.

Figura asimismo el informe emitido por el secretario del Ayuntamiento el día 22 de noviembre.

Posteriormente, mediante un escrito de 22 de noviembre (salida nº 1940 en el Registro del Ayuntamiento), se solicitó una aclaración al arquitecto don Jabier Lekuona sobre los documentos que deben ser publicados en el Boletín Oficial de Navarra. Se recibió la respuesta el día 23 (entrada nº 3133), que posteriormente ha sido matizada verbalmente por el señor Lekuona.

Seguidamente se inicia el debate. Lorea Flores indica que su grupo considera que la actuación propuesta es arriesgada, por lo que proponen no adoptar aun un acuerdo al respecto. El

akordiorik. Alkate jaunak adierazi du bere taldearen pazientzia agortuta dagoela, urteak daramatzatelako gai honekin Planaren aldaketa lortu gabe. Ondoren biek afera aztertzen segitu dute.

Behin eztabaida amaitu denean, bozketa egin da. Geroa Baiko bortz zinegotzien aldeko botoekin eta EH Bilduko lauen kontrakoarekin, honako erabaki hau hartu da:

**Lesakako Udaleko Osoko Bilkuraren erabakia, "Lesakako Udal Planaren Aldaketa Egituratzailea lur urbaizaezinaren esparruan" isilbidez onartu dela jakitun egin eta aipatu aldaketa hori osatzen duen hirigintzako araudia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzeko agintzen duena.**

AURREKARIAK

Lesakako Udalak, 2014ko uztailaren 25ean eginiko bilkuran, hasiera batean onartu du "Lesakako Udal Planaren aldaketa egituratzailea, lur urbanizaezinaren esparruan", Jabier Lekuona Errandonea arkitekto jaunak idatzi duena.

Behin legez eskaturiko tramiteak eginda, Lesakako Udaleko Osoko Bilkurak, 2016ko maiatzaren 20an eginiko bileran, behin-behineko onespena eman dio "Lesakako Udal Planaren aldaketa egituratzaileari, lur urbanizaezinaren esparruan", eta espediente osoa bidali da Nafarroako Gobernuko lurraldearen antolamendu arloan eskuduna den Departamentura, non 2016ko ekainaren 1ean sartu den.

alcalde indica que la paciencia de su grupo está agotada porque llevan años con este tema, sin haber logrado la modificación del Plan. A continuación siguen ambos examinando la cuestión.

Una vez concluido el debate se procede a la votación. Con los cinco votos a favor de los concejales de Geroa Bai y los cuatro en contra de EH Bildu, es adoptado el siguiente acuerdo:

**Acuerdo del Pleno del Ayuntamiento de Lesaka por el que se toma razón de la aprobación por silencio de la "Modificación Estructurante del Plan Municipal de Lesaka en el Ámbito del Suelo no Urbanizable" y se ordena la publicación en el Boletín Oficial de Navarra de la normativa urbanística integrante de dicha modificación.**

ANTECEDENTES

El Pleno del Ayuntamiento de Lesaka, en sesión celebrada el día 25 de julio de 2014, aprueba inicialmente la "Modificación estructurante del Plan Municipal de Lesaka en el ámbito del suelo no urbanizable", redactada por el arquitecto don Jabier Lekuona Errandonea.

Una vez realizados los trámites legalmente exigidos, el Pleno del Ayuntamiento de Lesaka, en sesión celebrada en fecha 20 de mayo de 2016, aprueba con carácter provisional la "Modificación Estructurante del Plan Municipal de Lesaka en el Ámbito del Suelo no Urbanizable", cuyo expediente completo es remitido al Departamento del Gobierno de Navarra competente en materia de ordenación del territorio, en el que tiene entrada con fecha 1 de junio de 2016.

2016ko ekainaren 13ko data duen idazki baten bitartez, Lurraldearen Antolamendua eta Hirigintzako Zerbitzuak jakinarazten dio Lesakako Udalari eskatu diela honako organo hauei txostenak emateko, aipatu aldaketa egituratzailearen inguruan:

- Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Administrazio Lokaleko Departamentuko Ingurugiro-Kalitatearen Zerbitzua.

- Ondare Historikoko Arkeologia Atala, Kultura, Kirola eta Gazteria Departamentuaren menpe dagoena.

Halaber, aipatu idazkian jakinarazten da, Administrazio Publikoetako Araubide juridikoaren eta administrazio-prozedura erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/92 Legearen 42. artikuluak xedatzen duenarekin bat, ebazteko epea bertan behera gelditzen dela, eta berriz hasiko dela beharrezko txosten horiek jasotzen direnean.

Aipatu hirigintza-espedienteak ez du berariazko behin betiko onespena jaso, Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko, Lurraldearen Antolamenduko eta Administrazio Lokaleko Foru Aginduaren bidez.

GOGOETA JURIDIKOAK

Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legearen 79.2 artikuluak honako hau xedatzen du:

"Udal plan orokorretako eta sektorizazio planetako antolamendu egituratzaileko zehaztapenen aldaketa Foru Lege honen 70.

Mediante comunicación de fecha 13 de junio de 2016, el Servicio de Ordenación del Territorio y Urbanismo notifica al Ayuntamiento de Lesaka que ha sido solicitada la emisión de informes en relación con el citado expediente de modificación estructurante a los siguientes órganos:

- Servicio de Calidad Ambiental del Departamento de Desarrollo Rural, Medio Ambiente y Administración Local

- Sección de Arqueología del Servicio de Patrimonio Histórico, dependiente del Departamento de Cultura, Deporte y Juventud

Asimismo, en la citada comunicación se informa que, de acuerdo con lo previsto en el artículo 42 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, se suspende el plazo de resolución, que se reanudará con la recepción de los preceptivos informes.

El citado expediente urbanístico no ha sido objeto de aprobación definitiva expresa mediante Orden Foral del Departamento de Desarrollo Rural, Medio Ambiente y Administración Local del Gobierno de Navarra.

CONSIDERACIONES JURÍDICAS

El artículo 79.2 de la Ley Foral 35/2002, de 20 de diciembre, de Ordenación del Territorio y Urbanismo, dispone que:

"La modificación de las determinaciones de ordenación estructurante de los Planes Generales Municipales y de los Planes de Sectorización se realizará conforme al procedimiento establecido en

artikuluan ezarritako prozeduraren arabera eginen da, honakoetan izan ezik:

a) Ez da beharrezkoa izanen lurralde-antolamendurako estrategia eta eredua.

b) Lurraldearen antolamenduaren eta hirigintzaren arloko departamentu eskudunak soilik aldaketak ukitutako txosten sektorialak bilduko ditu.

c) Jendaurreko epea hilabetekoa izanen da.

d) Kontseilariak bi hilabeteko epean emanen du behin betiko onespena.

Bertzalde, Foru Lege beraren 70 artikuluaren 17 idatz-zatiak, zera dio:

"Kontseilari eskudunak bere ebazpenak jakinaraziko dizkio ukitutako udalari, espediente osoa Foru Komunitateko Administrazioaren Erregistroan sartzen denetik hasi eta hiru hilabeteko epean. Epe hori igarotzen bada udalari inolako ebazpenik jakinarazi gabe, udal plan orokorra onetsita dagoela ulertuko da".

Bere aldetik, Administrazio Publikoetako Araubide juridikoaren eta administrazio-prozedura erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/92 Legearen 45.5.c) artikuluarekin bat, prozedura ebazteko eta ebazpena jakinarazteko legez ezarri den gehieneko epea geldieran utz daiteke Administrazio bereko edo bertze bateko organo bati nahitaez txostena eskatu behar zaionean, epea etenda egonen da eskaria egiten denetik txostena jaso arte, baina geldiera hori ezin izan daiteke inoiz hiru hilabete baino gehiagokoa.

el artículo 70 de esta Ley Foral, con las siguientes salvedades:

a) No será necesaria la Estrategia y Modelo de Ordenación del Territorio.

b) El departamento competente en materia de ordenación del territorio y urbanismo recabará únicamente los informes sectoriales afectados por la modificación.

c) El periodo de información pública será de un mes.

d) La aprobación definitiva por el consejero se producirá en el plazo de dos meses."

A su vez, el artículo 70, apartado 17 de la misma Ley Foral, establece que:

"El Consejero competente notificará sus resoluciones al ayuntamiento afectado en el plazo de tres meses desde el ingreso del expediente completo en el Registro de la Administración de la Comunidad Foral. Transcurrido dicho plazo sin que se hubiere notificado resolución alguna al ayuntamiento, se entenderá aprobado el Plan General Municipal".

Por su parte, de acuerdo con el artículo 42.5.c) de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, el transcurso del plazo máximo legal para resolver un procedimiento y notificar la resolución se podrá suspender cuando deban solicitarse informes que sean preceptivos y determinantes del contenido de la resolución a órgano de la misma o distinta Administración, por el tiempo que medie entre la petición y la recepción del informe, sin que este

plazo de suspensión pueda exceder en ningún caso de tres meses.

Aipatu diren legezko araudietan xedaturikoa ikusita, "Lesakako Udal Planaren Aldaketa Egituratzailea lur urbanizaezinaren esparruan" behin betiko onetsitzat jo behar da kasu honetan, isilbide positiboaren ondorioz. Beraz, eta aipatu Foru Legearen, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzkoa, 81. artikuluak xedatzen duenarekin bat, bidezko da udal ekimenez agintzea Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzeko onarturiko aldaketa osatzen duten hirigintzako arauak.

A la vista de lo dispuesto en las normas legales citadas, la "Modificación Estructurante del Plan Municipal de Lesaka en el Ámbito del Suelo no Urbanizable" ha sido objeto en el presente caso de aprobación definitiva en virtud de silencio positivo; por lo que, de acuerdo con lo que establece el artículo 81 de la citada Ley Foral de Ordenación del Territorio y Urbanismo, procede ordenar a iniciativa municipal la publicación en el Boletín Oficial de Navarra de las normas urbanísticas integrantes de la modificación aprobada.

Azaldutako guziagatik, eta legez emaniko ahalmenak erabiliz, Lesakako Udaleko Osoko Bilkurak, honakoa

ERABAKI DU:

1 – Jakitun geratzea behin betiko onartu dela, isilbidez, "Lesakako Udal Planaren aldaketa egituratzailea, lur urbanizaezinaren esparruan". Onespen hori joko da Udaleko Osoko Bilkuraren 2016ko maiatzaren 20ko erabakian behin-behinean onartu zen terminoetan eta edukiarekin.

2 – Agintzea Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzeko "Lesakako Udal Planaren aldaketa egituratzailea, lur urbanizaezinaren esparruan" sarturiko hirigintzako arauak.

3 – Erabaki honen berri ematea Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Administrazio Lokaleko Departamentuari,

Por todo lo expuesto, y en virtud de las facultades legalmente atribuidas, el Pleno del Ayuntamiento de Lesaka

ACUERDA:

1º.- Tomar razón de la aprobación definitiva por silencio de la "Modificación Estructurante del Plan Municipal de Lesaka en el Ámbito del Suelo no Urbanizable", en los términos y con el contenido que son objeto de aprobación provisional mediante Acuerdo del Pleno del Ayuntamiento de fecha 20 de mayo de 2016.

2º.- Ordenar la publicación en el Boletín Oficial de Navarra de las normas urbanísticas incluidas en la "Modificación Estructurante del Plan Municipal de Lesaka en el Ámbito del Suelo no Urbanizable".

3º.- Dar traslado del presente Acuerdo al Departamento de Desarrollo Rural, Medio Ambiente y Administración Local del Gobierno de

dagozkion ondorioetarako.

Navarra, a los efectos oportunos.

### 6 – ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA

Zinegotzi guziei pasatu zaie, posta elektronikoz, azken osoko bilkuratik gaur arte Alkatetzak emaniko ebazpenen zerrenda. Ez dutenei, aipatu zerrenda horren paperean inprimaturiko kopia bana utzi zaie, bakoitzari dagokion erretiluan.

Ondoren, eta Toki Erakundeen Antolamendu, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko Erregelamenduaren 91.4 artikuluak xedatutakoaren arabera, alkate jaunak galdetu du ea talde politikoren batek premiazko arrazoiak direla-eta Udalbatzak eztabaidatzea nahi duen aferarik ote duen, deialdiarekin batera zihoan gai-zerrendan ez zegoena eta "eskari-galderak" puntuan sartzerik ez duena.

Ondoren, aderazi du 22an jaso zela akordio-proposamen bat, Altsasun gertaturikoaren inguruan.

Osoko Bilkurak aho batez erabaki du aferaren premia onartzea, eta ondoren hura eztabaidatzera pasa da.

### 6 - CONOCIMIENTO DE LAS RESOLUCIONES DE LA ALCALDÍA

Se ha pasado a todos los concejales, mediante correo electrónico, la relación de las resoluciones adoptadas por la Alcaldía desde la última sesión hasta el día de hoy. A los que no lo tienen, se les deja una copia impresa en papel de la citada lista, en su respectiva bandeja.

Seguidamente y conforme a lo establecido por el artículo 91.4 del Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Corporaciones Locales, el señor alcalde pregunta si algún grupo político desea someter a la consideración del Pleno, por razones de urgencia, algún asunto no comprendido en el orden del día que acompañaba a la convocatoria y que no tenga cabida en el punto de ruegos y preguntas.

A continuación señala que el día 22 se recibió una propuesta de acuerdo en relación a los hechos de Altsasu/Alsasua.

El Pleno acuerda por unanimidad estimar la urgencia del asunto, que pasa a ser seguidamente tratado.

### ALTSASUKO GERTAKARIAK

22an jaso zen akordio-proposamen bat, Lesakako EH Bilduko udal taldeak aurkezturikoa, Altsasuko gertakarien harira (3121 zenbakiko sarrera Udaleko Erregistro Orokorrean).

### HECHOS DE ALTSASU / ALSASUA

El día 22 se recibió una propuesta de acuerdo, presentada por el grupo municipal de EH Bildu de Lesaka, en relación a los hechos de Altsasu/Alsasua (entrada nº 3121 en el Registro General del Ayuntamiento).

Alkateak adierazi du horren inguruan, alderdi politiko ezberdinek (haien artean EH Bildu dago) adostu dutela adierazpen instituzional bat Nafarroako Parlamentuari zuzendua, eta bertan, bertzeak bertze, bere elkartasuna adierazten dute Altsasuko Udalak deituriko manifestazio isilarekin, Altsasun eginen dena azaroaren 26an, larunbata.

El alcalde indica al respecto que los diversos partidos políticos (entre los que se halla EH Bildu) han consensuado una declaración institucional dirigida al Parlamento de Navarra en la que, entre otros puntos, manifiestan su apoyo a la manifestación silenciosa convocada en Altsasu / Alsasua, por su Ayuntamiento, para el sábado 26 de noviembre.

Eztabaida izan da eta bertan parte hartu dute alkateak, Lorea Floresek eta Oier Iantzik.

Se produce un debate en el que intervienen el alcalde, Lorea Flores y Oier Iantzi.

Hura amaituta, Osoko Bilkurak aho batez erabaki du atxikitzea Nafarroako Parlamentura zuzenduriko adierazpen instituzional horrekin.

Finalizado el mismo, el Pleno acuerda por unanimidad adherirse a la citada declaración institucional dirigida al Parlamento de Navarra.

**7 – OSOKO BILKURAKO KONTROL-JARDUERA. ESKARI-GALDERAK**

Eskari moduan, Maider Arrietak eskatzen du aktan jartzeko zein izan den **Mattin Etxabide zinegotzia** urriaren 28ko eta gaurko bilkuretara ez etortzeko arrazoia. Gaiaren inguruan alkatearekin eztabaida izan ondoren, leitu du Etxabidek Udalari azaroaren 24an bidali zion posta elektronikoa (3149 zenbakiko sarrera). Bertan adierazten du dispertsio politikaren ondorioz, Igor Portu preso daukela **Cordobako espetxean** eta bisitatzera joan behar duela. Alkateak adierazi du, aspaldidanik gainerako kasuetan egiten den bezala, aktan bakarrik jarriko dela ez etortzea justifikatua dela, baina arrazoia zein den adierazi gabe.

**7 – ACTIVIDAD DE CONTROL DEL PLENO. RUEGOS Y PREGUNTAS**

A modo de ruego, Maider Arrieta solicita que se incluya en el acta la razón por la que el **concejal Mattin Etxabide** no ha asistido a las sesiones de 28 de octubre y a la de hoy. Tras debatir sobre el asunto con el alcalde, da lectura al correo electrónico enviado por Etxabide al Ayuntamiento el día 24 de noviembre (entrada nº 3149). En él indica que debido a la política de dispersión tienen preso a Igor Portu en el **centro penitenciario de Córdoba** y va a ir a visitarlo. El alcalde indica que, al igual que se hace en los demás casos, desde hace años, únicamente se pondrá en el acta que la ausencia ha sido justificada, pero sin indicar el motivo.

Lorea Floresek galdetu du zein arrazoiengatik Gizarte Zerbitzuetako Mankomunitateak ez dituen proiektatu Lesakan

Lorea Flores pregunta por las razones debido a las que la Mancomunidad de Servicios Sociales no haya proyectado en Lesaka

**ekitaldi jakin batzuk emakumeen aurkako indarkeria ezabatzeko nazioarteko egunean.** Ondoren, eztabaida izan da eta bertan parte hartu dute alkateak eta Flores, Txoperena, Arrieta eta Apezteguia zinegotziek.

Azkenik, Maider Arrietak galdetu du **Euskararen Plan Estrategikoari** buruz, Nafarroako Gobernuak prestatu duena, eta Lesakako Udalaren jarduketegatik horren inguruan. Eztabaida izan da, eta bertan parte hartu dute, orain ere, alkateak eta Lorea Floresek.

Aipaturiko eguneko ilunabarreko zortziak eta hamazazpi minutu direnean eta eztabaidatzeko gai gehiago ez dagoenez, alkate jaunak akabatutzat eman du bilera. Nik, idazkariak, egiaztatu egiten dut.

determinados **actos del día internacional para la eliminación de la violencia hacia las mujeres.** Seguidamente se produce un debate con intervenciones del alcalde y de los concejales Flores, Txoperena, Arrieta y Apezteguía.

Finalmente Maider Arrieta pregunta por el **Plan Estratégico del Euskera**, elaborado por el Gobierno de Navarra y por las actuaciones del Ayuntamiento de Lesaka al respecto. Se produce un debate en el que intervienen también el alcalde y Lorea Flores.

Siendo las veinte horas y diecisiete minutos del día de la fecha y no habiendo más asuntos que tratar, el señor alcalde da por finalizada la sesión. De todo ello yo, como secretario, certifico.